

Zaharrak

Joxean Agirre

Zaharrak eta zaharrak daude. Multzo handi bat zahar aktiboen da. Hor daude garai bateko aktibista eta militante ohiak. Orain pentsiodunen plataformetan edo beste hainbat kausa onen aldeko mobilizaziotan ikus daitezke eta gizartearen eta are gizateriaren ondare direla esan daiteke, halakoxea baita jende horren meritua. Talde honetakoek ere badituzte beren ajeak, baina tarteka bakarrik jabetzen dira beren adinaz eta zahartzaroa katarro bat balitz bezala daramate. Gorputzaren mantenuak, egia da, lan pixka bat ematen die; egia da protesi batzuk ere badaramatzatela gainean, betaurreko pare bat edo bi gutxienez; egia da kirola egitean nekatu egiten direla, baina arlo askotan oraindik gazteen pare ibil daitezke.

Badaude zahar beteranoak ere, zahartzaroaz asko dakitenak, eta horiek beti ari zaizkigu lezioak ematen, etorriko zaigunari buruzko iragarpenak egiten. «Ikusiko duk nire adinera iristean», esaten digute eta oraindik urrun samar ikusten ditugun patologia eta ezintasunak aipatzen hasten direnean ez direla nekatuko ematen du. Noizean behin beren ebakiondoak erakusten ere saiatzen dira eta «niri aldaka bat aldatu zidatean» edo «ni belaunetik lau aldiz operatu ninditean», esaten dutenean, hobe duzu ondorengo alde egitea, bestela galtzak jaitzen hasteko gai izaten baitira.

Baina badaude, ai!, zahar profesionalak ere. Horiek inon diren eskela guztiak irakurtzen dituzte eta beren ajeak zerrendatzen ematen dute egu-

na, inguruko hipokondriakoen zori-txarrerako. Ernegatuta bizi dira eta telebistan, esate baterako, Ukrainako edo Somaliako eszena gogorren bat erakusten badute, «ni okerrago na-gok», esango dute. Urteak dira algara bat egin ez dutela eta errukia, samurtasuna eta gisako sentimenduak zer diren ere ahaztuta bizi dira. Beren bu-ruarekin nahikoa lan badute eta neu-rrri batean behintzat beste mundutik gertuago sentitzen direla dirudi he-mengotik baino. Diogun zahar termi-nalak direla.

Eta, azkenik, badago zaharren artean gerontokrazia deitzen zaion kasta bat, aginteari edo diruari atxikita bizi de-na, baina horiek urrutiko intxaurrak dira, nik behintzat nire inguruan ez baitut alerik ere ezagutzen. •

Itsasoak hortxe jarraitzen du oraindik

Asier Aiestaran

Elkanoren mundu biraren urteu-rrinak itsasora begira jarri gaitu euskaldun asko egunotan. Badirudi historikoki itsasoari oso lotuta egon arren, gaur egun herri honek baduela horrelako aitzakien beharra tarte bat hartu eta harreman es-tu horretaz hausnartzeko.

Nire inguruan iruditu zait eztabaida gehienak historikoak izan direla. Bi ai-patzearen, sona izan dute Elkanoren ustezko izaera inperialistaren inguru-ko gogoetek, edo munduari bira eman zion “Victoria” ontziaren jatorriari bu-ruzkoek, ez baitago argi non eraiki zen.

Logikoa da, eta eztabaida interesga-riak iruditzen zaizkit, adi jarraitu di-

tudanak eta aurrerantzean ere, urteu-rrin borobilik ospatu beharrik gabe, sakontzen jarraitzea mereziko lukete-nak. Dena aberasgarri.

Baina uste dut horrelakoetan ezta-baida historikoekin batera beharrezkoa dela historia hori gaur egungo egoera-rekin lotzeko gaitasuna izatea, historia horretatik zer ikasi dugun edo zer ikasi dezakegun aztertzea, eta etorkizunera begira zer ekarpen egin daitekeen hausnartzea. Erabilgarria izan dadila.

Zentzu horretan, oso interesgarria iruditu zait aurreko ostiralean Geta-rian bertan estreinatu zen “Itsasoak pizten gaitu” dokumentala. Beñat Ge-reka getariarra da zuzendaria eta beti-

danik herri arrantzalea izan den horrek gaur egun itsasoarekin eta arrantzare-kin duen harremana aztertzen du.

Pasarte batean, arrantzalea den aita batek lan horretan jarraitu ala ez zalan-tzan dagoen semeari horrela esaten dio, gutxi gorabehera: «Aukera ona da. Erregeen pare biziko zara. Arraina mo-dan dago, leku guztietatik etortzen da jendea arraina jatera eta norbaitek arrantzatu beharko du. Ez duzu arraina Txinatik inportatuko, ezta?»

Jendeak bertako arraina nahi du nos-ki, baina dokumentalean argi geratzen da bertako arrantzaleek ez dutela behar besteko babesa sentitzen. Dagokionak badu hor erronka polita. •